

ABIZENAK EUSKAL GRAFIAZ IDAZTEKO KANPAINA

Udalak, UEMAgaz batera, *Guk abizena, zuk?* kanpaina jarri dau martxan, euskal abizenak modu ofizialean eta toki guztietan euskeraz izan gura dabenentzat. Holan, bada, *Arteche*, *Aguirre*, *Aurrecoechea*, *Echenique* edo *Echevarria* aldatu eta *Artetxe*, *Agirre*, *Aurrekoetxea*, *Etxenike* edo *Etxebarria* bihurtzeko aukerea izango dabe interesatuek.

Izan be, herriko telefono listina hartu besterik ez dago ikusteko zenbat eta zenbat euskal abizen dagozan oraindino gaztelaniazko grafiagaz idatzita: *ch*, *c*, *qu* eta *gui* ugari dago oraindik, beste garai baten arrasto baten moduan.

Beste hizkuntzetan gertatzen dan legez, abizenak jatorrizko hizkuntzan behar dan moduan idaztea da ekimenaren helburua, gogoan hartu behar da hizkuntza normalizatueta ez dala horrelakorik gertatzen: "Ingelesek *Shakespeare* idazten dabe, eta ez *Xexpir*, eta espainolek *Cervantes* idazten dabe eta ez *Zerbantes*. Nor gara euskaldunak horreek berridazten hasteko? *Aguirre* edo *Echevarria* abizenak baldin badira, zergaitik ez *Agirre* eta *Etxebarria* idatzi, euskeraz?

Bermeon, etxe guztietara helduko da abizenak euskalduntzeko kanpaina; izan be, neguko UEMArean Berripaperean tarte bat eskaini jako kanpainari, eta datozen egunetan postala banatuko da etxeetako postontzietan eta toki esanguratsuetan be, hala nola, udal eraikinetan, kultur etxean, liburutegian, euskaltegietan..., abizenak euskalduntzeko egin behar dana adierazota.

Abizena euskal grafiara moldatu nahi dabenek hiru pauso honeek eman behar dabez:

- 1.- Erregistro zibilera edo bake epaitegira joan eta esan abizena euskal grafiaraz ipini gura dala esan.
- 2.- Han emoten daben eskaera orria norberaren datuakaz bete.
- 3.- Agiri honeek eroan:
 - Nortasun agiriaren fotokopia. Adinez nagusia ez danak, gurasoena be beharko dauz.
 - Hitzez hitzeko jaiotza ziurtagiria
 - Errolda agiria
 - Ezkonduta izanik edo seme-alabarik izan ezkerro, familia liburua.
 - 16 urtetik gorako seme-alabarik izan ezkerro, seme-alaben nortasun agiriaren fotokopia.

Ez da lan handia aurrerantzean abizena leku guztietan modu ofizialean euskeraz izatea.

